

Mundukoak eta gu

Deia, 1977-07-22.

Uste gabean, munduan zehar gertatzen direnak, entzun edo irakurtzen ditugun bakoitzean esaten diogu gure buruari honek, zer ikusi du gurekin?

Gu, Euzkadi da, noski.

Maila askotako arazoak ditugu gure artean. Anai artean. Anai zaharren artean. Atzo hemen argitaratu genuen olerki eder batean Arrese-Beitiak orain dela ia ehun urteko hitzekin gogora arazi zigun. Foruak eta Euskerak gure artean duten eragina, larria eta aspaldikoa dela. Bestalde, ematen du gaur ere bi gai hoietaz arduratzen garen euskaldunak asko garela. Eta hala ere, bien aurrerapen bideak sortzeko indar gehienak alperrik galtzen ari gara.

Jakinaren ganean gara elkartasuna, indarra dela.

Ba dakigu, gure zatiketak, gu ahuldu eta arerioa indartzen duela.

Hoiek ikasiak ditugu aspaldi, baina ez gara lanean elkarrekin jartzen.

Hainbesteko diferentziarik ba al da gure artean?

Egitazko diferentzia, gutxi.

Asko dena, seta da.

Egun hoietan zabaldu diren berri batzu izan dira gai honen ernetzaille.

1.- Errusiako Eliza Ortodoxoaren buru den Pimen Patriarkari sobietarrak ikurrin gorritz ornitutako ohore-domina eskeini diote "pakearen alde egin dituen lan aberkoiak" saritzeko.

2.- Aita Santuak, Shintoista talde baten buru den Potuwile Gunaratana-ri hitz berezi batzu esan dizkio bildura orokor batean; Paulo VI-ak ongietorria egin berri zien ikustera etorri zitzaizkion Konko-Kyo erlijio taldeko batzuei: "denen Aita dena onartzen baituzute, eta denak senide baigara".

3.- Gaur bertan teletipoak dionez, Aita Arrupe itzuli berria da Sortaldeko herri batzuetatik txango bat egin eta gero, Moskun egin du azkeneko egon-aldi labur bat, eta Ortodoxoen buru den Pimen berarekin egon da, hain zuzen, Katoliku eta Ortodoxoen artekoaz hitzegiteko.

Eta hoiek denak irakurri eta gero galdetzen dio batek bere buruari hoiek denak bere artean baino urrutirago ote gaude herri txiki hau osatzen dugunok?